



# NERABEEK SARE SOZIALAK NOLA ERABILTZEN DITUZTEN JAKITEA

## SARE SOZIALAK. SEGURTASUNA SAREAN.

**EUSKO JAURLARITZA**

OSASUN ETA KONTSUMO  
SAILA  
*Kontsumo Zuzendaritza*



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO  
*Dirección de Consumo*

# INKESTAREN AURKIBIDEA

---

- Sarrera.
- Datu-bilketa. Itemak
  1. Sare sozial\* birtualen batean erregistratua al zaude?
    1. Baiezkoa erantzun baduzu, astean zenbat denbora ematen duzu, batez beste, sare sozialak erabiltzen?
    2. Zertarako erabiltzen dituzu sare sozialak?
    3. Sare sozialen bidez ezagututako inorekin elkartu al zara inoiz?
    4. Zer neurri hartu zenituen sare sozialean ezagutu zenuen norbaitekin elkartzeko?
    5. Zure ustez, sarean ezagutu duzun jendeari datu pertsonalak\*\* ematea elkar ezagutzeko modua al da?
    6. Sarean argazkiak, mezuak eta abar konpartitzen dituzu talde jakin batekin: lagunekin, senitartekoekin, denekin, baina talde horretaz gain, ba al dakizu sare sozialean konpartitzen duzun informazio hori noren esku uzten duzun?
    7. Sare sozialean erregistratu ahal izateko pribatutasun-politika onartu behar izan zenuen, baina ulertu al zenuen testu hori?
    8. Inoiz haserre edo deseroso sentitu al zara norbaitek zuri buruz argitaratu duen argazki edo iruzkin bat dela-eta?
    9. Beste norbaiten datu pertsonalak\* igo izan dituzunean, ba al zenuen haren baimenik?
    10. Sare sozial horretan baja emanez gero, zer gertatuko da espazio horretan konpartitua zenuen informazioarekin?
- Ondorio orokorrak.

\*SARE SOZIALA: Messenger, facebook, tuenti, twiter, hi5, meteeting, qdamos, model...

\*\*DATU PERTSONALAK: izena, abizenak, helbidea, telefono-zenbakia, emaila, argazkiak, bideoak, ikastetxea, lantokia... pertsona bat identifikatzea ahalbidetzen duen informazio oro.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO  
SAILA  
Kontsumo Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO  
Dirección de Consumo

## SARRERA

---

Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Zuzendaritzak, Kontsumo Gelak prestakuntza iraunkorreko programaren bidez, 2010eko urritik abendura bitarte erabiltzaileen artean inkesta bat egin zuen ***NERABEEK SARE SOZIAL BIRTUALAK NOLA ERABILTZEN DITUZTEN JAKITEKO.***

Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Zuzendaritzak, Kontsumo Gelak prestakuntza iraunkorreko programaren bidez, ***NERABEEK SARE SOZIAL BIRTUALAK NOLA ERABILTZEN DITUZTEN JAKITEKO.*** inkesta bat egin zuen erabiltzaileen artean 2010eko urritik abendura bitarte.

Inkesta horren **helburua** da Kontsumo Geletako erabiltzaile diren nerabeek sare sozial birtualak nola erabiltzen dituzten ezagutzea eta erabiltzen ari diren tresna hori zenbateraino ezagutzen duten jakitea.

## DATU BILKETA


---

Datuak biltzeko 11 itemeko galdesorta erabili zen.

Lagina osatzeko 14-18 urteko 362 nerabe hartu ziren, Kontsumo Gelak hiru zentroetako (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) erabiltzaileen artetik.


2010eko azaroan bildu genituen datuak. Bildutako eta aztertutako datuetan oinarrituta, txosten hau osatu dugu.

## 1.- Sare sozial\* birtualen batean erregistratua al zaude?




# 1.- Sare sozial\* birtualen batean erregistratua al zaude?


## NESKAK




## MUTILAK



## 14-16 urte



## 17-18 urte



- Bai, batean
- Bai, batean baino gehiagotan
- Ez, ez zaizkit interesatzen
- Ez, ez zaizkit fidagarriak iruditzen




## 1.- Sare sozial\* birtualen batean erregistratua al zaude?

### ○ Ondorioak

- Inkesta erantzun dutenen % **99,45** sare sozial birtualen batean erregistratua dago.
  - % 71,55 batean baino gehiagotan.
  - % 27,90 batean.
  - **Adin-tarteari edo sexuari erreparatuta, ez dago alde handirik.**

# 1.1.- Baiezkoa erantzun baduzu, astean zenbat denbora ematen duzu, batez beste, sare sozialak erabiltzen?





1.1.- Baiezkoa erantzun baduzu, astean zenbat denbora ematen duzu, batez beste, sare sozialak erabiltzen?

---


---

## ○ Ondorioak

- % 20,99k astean gutxienez 6 ordu ematen ditu sare sozialak erabiltzen.
- % 39,78k 1-3 ordu ematen ditu astean.
- Astean 6 ordu baino gehiagoz aritzen diren nesken ehunekoa (% 26,21) mutilena baino handiagoa da (% 14,10).



## 1.2.- Zertarako erabiltzen dituzu sare sozialak?



- Lan egiteko
- Ikasteko eta irakasgaietako edukiak konpartitzeko
- Aisialdirako
- Ligatzeko
- Lagunekin komunikatzeko

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO  
SAILA  
Kontsumo Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO  
Dirección de Consumo

## 1.2.- Zertarako erabiltzen dituzu sare sozialak?


---

---

### ○ Ondorioak

- Inkesta erantzun duten gazteen % 89,5ek dio sare sozialak lagunekin komunikatzeko erabiltzen dituela.
- Beste aukerak oso atzean geratu dira:
  - Ligatzeko: % 3,31
  - Aisialdirako: % 4,14
  - Ikasteko edo irakasgaietako edukiak konpartitzeko: % 2,49
  - Lan egiteko: % 0,28

### 1.3.- Sare sozialen bidez ezagututako inorekin elkartu al zara inoiz?





■ Bai, behin

■ Bai, behin baino gehiagotan

■ Inoiz ez; ez naiz inoiz elkartu sare sozialaren bidez ezagututako inorekin.


## 1.3.- Sare sozialen bidez ezagututako inorekin elkartu al zara inoiz?

### ○ Ondorioak

- Inkesta erantzun duten nerabe gehienek, hau da, % 73,20k dio ez dela inoiz sare sozialaren bidez ezagututako inorekin elkartu.
- Hala ere, gutxienez behin elkartu direnak % 26,79 dira.
- Noizbait elkartu direla diotenen artean mutilak gehiago dira.
  - % 32,69 
  - % 22,33 
- Era berean, 17-18 urtekoen artean ehunekoa handiagoa da (% 33,08), 14-16 urtekoen artean baino (% 23,14).

## 1.4.- Zer neurri hartu zenituen sare sozialean ezagutu zenuen norbaitekin elkartzeko?

- Toki publiko batean elkartu nintzen
- Senitarteko edo lagun bati esan nion
- Ez nuen inolako neurririk hartu




## 1.4.- Zer neurri hartu zenituen sare sozialean ezagutu zenuen norbaitekin elkartzeko?

Oro har


- Toki publiko batean elkartu nintzen
- Senitarteko edo lagunaren bati esan nion
- Ez nuen inolako neurririk hartu

% 24,56



% 27,19

% 48,25



EUSKO JAURLARITZA





GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO  
SAILA  
Kontsumo Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO  
Dirección de Consumo

## 1.4.- Zer neurri hartu zenituen sare sozialean ezagutu zenuen norbaitekin elkartzeko?



■ Toki publiko batean elkartu nintzen

■ Senitarteko edo lagun bati esan nion

■ Ez nuen inolako neurririk hartu

**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

OSASUN ETA KONTSUMO  
SAILA  
Kontsumo Zuzendaritza



DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO  
Dirección de Consumo



## 1.4.- Zer neurri hartu zenituen sare sozialean ezagutu zenuen norbaitekin **elkartzeko**?


---

---

### ○ Ondorioak

- Inkesta erantzun dutenen % 26,79k dio noizbait elkartu izan dela sarearen bidez ezagututako norbaitekin.
  - Gehienek erabili duten prebentzio-neurria leku publiko batean geratzea izan da (% 48,25).
  - Hala ere, % 24,56k dio ez duela inolako neurririk hartu.
    - Mutilen artean ehunekoa handiagoa da (% 33,33), nesken artean baino (% 17,79).

## 1.5.- Zure ustez, sarean ezagutu duzun jendeari datu pertsonalak\*\* ematea elkar ezagutzeko modua al da?




## 1.5.- Zure ustez, sarean ezagutu duzun jendeari datu pertsonalak\*\* ematea elkar ezagutzeko modua al da?

### ○ Ondorioak

- % 65,75ek uste du datu pertsonalak ematea ez dela elkar ezagutzeko modua.
- Ez dago alderik adin-tarteei erreparatuz gero, baina bai, ordea, sexuari erreparatuta.
  - Mutilen artean % 41,67k uste du datu pertsonalak ematea elkar ezagutzeko modua dela, eta nesken artean % 28,64k.

1.6.- Sarean argazkiak, mezuak eta abar konpartitzen dituzu talde jakin batekin: lagunekin, senitartekoekin, denekin, baina talde horretaz gain, ba al dakizu sare sozialean konpartitzen duzun informazio hori noren esku uzten duzun?



■ Bai  
■ Ez

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO  
SAILA  
Kontsumo Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO  
Dirección de Consumo

1.6.- **Sarean** argazkiak, mezuak eta abar **konpartitzen dituzu** talde jakin batekin: lagunekin, senitartekoekin, denekin, baina talde horretaz gain, **ba al dakizu sare sozialean konpartitzen duzun informazio hori noren esku uzten duzun?**


---

---

## ○ Ondorioak

- % 81,77k dio badakiela informazioa noren esku uzten duen.
- Baina hurrengo itemean, % 56,63k dio ez duela pribatutasun-politika irakurri; beraz, egiaz ez dakite informazioa noren esku utzi duten, nahiz eta % 81.77k baietz esan.

## 1.7.- Sare sozialean erregistratu ahal izateko pribatutasun-politika onartu behar izan zenuen, baina ulertu al zenuen testu hori?



## 1.7.- Sare sozialean erregistratu ahal izateko **pribatutasun-politika** onartu behar izan zenuen, baina **ulertu al zenuen testu hori?**

---

---


### ○ Ondorioak

- % 56,63k dio ez duela irakurri pribatutasun-politika.
- % 6,63k dio irakurri duela baina ez duela ulertu.

## 1.8.- Inoiz haserre edo deseroso sentitu al zara norbaitek zuri buruz argitaratu duen argazki edo iruzkin bat dela-eta?



■ Bai      ■ Ez



EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO  
SAILA  
Kontsumo Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO  
Dirección de Consumo



## 1.8.- Inoiz haserre edo deseroso sentitu al zara norbaitek zuri buruz argitaratu duen argazki edo iruzkin bat dela-eta?



## 1.8.- Inoiz haserre edo deseroso sentitu al zara norbaitek zuri buruz argitaratu duen argazki edo iruzkin bat dela-eta?


---

---

### ○ Ondorioak

- % 36,19k dio haserre edo deseroso sentitu dela berari buruz argitaratutako iruzkin edo argazkiren bat dela-eta.
- Sexuaren arabera, ehuneko hori % 40,78ra handitzen da nesken kasuan.

## 1.9.- Beste norbaiten datu pertsonalak\* igo izan dituzunean, ba al zenuen haren baimenik?



## 1.9.- Beste norbaiten datu pertsonalak\* igo izan dituzunean, **ba al** zenuen haren baimenik?


---

### ○ Ondorioak

- % 18,51k dio beste norbaiten datu pertsonalak igo dituela haren baimenik izan gabe.


## 1.10.- Sare sozial horretan baja emanez gero, zer gertatuko da espazio horretan konpartitua zenuen informazioarekin?

- Profila ezabatu egiten da eta orduan inork ezin du informazioa eskuratu
- Profila ezabatu egiten da baina arrastoak geratzen dira eta nik ezin ditut kontrolatu
- Profila ezabatu egiten da, nik kontrolatu ezin ditudan arrastoak geratzen dira eta, horretaz gain, informazioa artxibatuta geratzen da sare soziala sortu duen enpresaren datu-basean
- Ezin da ezabatu
- Ed/Ee



## 1.10.- Sare sozial horretan baja emanez gero, zer gertatuko da espazio horretan konpartitua zenuen informazioarekin?

- Profila ezabatu egiten da eta orduan inork ezin du informazioa eskuratu
- Profila ezabatu egiten da baina arrastoak geratzen dira eta nik ezin ditut kontrolatu
- Profila ezabatu egiten da, nik kontrolatu ezin ditudan arrastoak geratzen dira eta, horretaz gain, informazioa artxibatuta geratzen da sare soziala sortu duen enpresaren datu-basean.
- Ezin da ezabatu
- Ed/Ee



## 1.10.- Sare sozial horretan baja emanez gero, zer gertatuko da espazio horretan konpartitua zenuen informazioarekin?

---

### ○ Ondorioak

- % 51,10ek dio profila ezabatu egiten dela eta orduan inork ezin duela profil horretan sartu.
- % 25,41ek ez daki edo ez du erantzun
- % 12,98ren ustez profila ezabatu egiten da, kontrolatu ezin dituen arrastoak geratzen dira eta, horretaz gain, informazioa sare soziala sortu duen enpresaren datu-basean artxibatuta geratzen da.
- % 7,73k dio profila ezabatu egiten dela baina arrastoak geratzen direla eta ezin dituela kontrolatu.
- % 2,76ren ustez profila ezin da ezabatu.

# AZKEN ONDORIOAK

Inkesta honen helburua hauxe da: nerabeek sare sozialak nola erabiltzen dituzten jakitea eta nerabeek datu pertsonalak babesteko legeari eta sare sozialen pribatutasun-politikari buruz dakitena ezagutzea.

Aipatzeko moduko datu bat: Kontsumo Gelak hiru zentroetako erabiltzaile diren ia nerabe guztiak sare sozialen batean erregistratuta daude eta ez dago alde handirik sexuaren eta adinaren araberako alde handirik gabe.

Nerabe gehientsuenek lagunekin komunikatzeko erabiltzen dituzte sare sozialak.

Sare sozial baten bidez ezagututako norbaitekin inoiz elkartu den nerabe kopuruari (% 26,79) dagokionez, nabarmendu behar dugu % 24,56k ez zuela inolako prebentzio-neurririk hartu. Parametro horretan mutilak neskei gailentzen zaizkie. Hala ere, inkesta erantzun duten gehienak ez dira elkartu sare sozialaren bidez ezagututako jendearekin.



# AZKEN ONDORIOAK

Bestalde, inkesta erantzun duten nerabeen erdiek baino gehiagok (% 56,63) ez dute irakurri sare sozialaren pribatutasun-politika, erregistratuta egonda ere. Eta hain justu testu horretan azaltzen zaio erabiltzaileari sare hori norena den, informazioa noren esku geratzen den, zertarako erabil daitekeen eta abar.

Gainera, % 6,63k dio pribatutasun-politika irakurri bai irakurri duela, baina ez duela ulertu.

Hirugarrenen datu pertsonalen erabilerari dagokionez, inkesta erantzun dutenen heren bat baino gehiago deseroso edo haserre sentitu da hari buruz argitaratutako argazki edo iruzkinen bat dela-eta.

Hala ere, soilik % 18,51k onartu du besteren datu pertsonalak igo dituela haren baimenik izan gabe.

# AZKEN ONDORIOAK

Azkenik, % 25,41ek ez du erantzun edo esan du ez dakiela zer gertatzen den, baja emandakoan, espazio horretan konpartitutako informazioarekin. % 51,10ek uste du profila ezabatu egiten dela eta orduan inork ezin duela profil horretan sartu.

Soilik % 12,98k dio, ongi esan ere, nahiz eta profila ezabatu, kontrolatu ezin dituen arrastoak geratzen direla oraindik eta informazio hori enpresaren datu-basean artxibatuta geratzen dela.

Lurraldearen arabera, erantzunetan ez da alde handirik ikusten. Soilik Bizkaian sumatu da alderen bat sare sozialak erabiltzen emandako denborari dagokionez eta astean gutxienez 6 ordu ematen dituztenek batez bestekoa gainditzen dute. Nabarmendu behar dugu, halaber, % 48k aipatu duela deseroso edo haserre sentitu izan dela hari buruzko datu pertsonalak argitaratu direlako, eta hiru lurraldeetan batez bestekoa % 36,19.